



Universidad del País Vasco Euskal Herriko Unibertsitatea

JARDUERA PROGRAMA 2023-2024 IKASTURTEA ARABAKO CAMPUSEKO ERREKTOREORDETZA





Aurkibidea

1. Azpiegiturak eta baliabideak	3
2. Garapen akademikoa eta ikerketaren garapena.....	3
3. Esperientzia Gelak.....	4
4. Euskara, ikasleak eta mugikortasuna.....	4
5. Ekintzailtza eta laneratzea.....	5
6. Kultura eta kirola	5
7. Eranskina.....	7

1. Azpiegiturak eta baliabideak

- 1.1. Azpiegiturak Hobetzeko Urte Anitzeko Plan Berezia garatzea.
- 1.2. Campuseko eraikinak eta instalazioak mantentzeko eta hobetzeko jarduerak gauzatzea.
- 1.3. Larrialdietako planak eguneratzea eta simulakroak antolatzea, zehaztutako egutegiari jarraituz.
- 1.4. Arauzko eta maiztasun jakin bateko ikuskatzeak egitea, eta neurri zuzentzaileak ezartzea, hala badagokio.
- 1.5. Campuserako joan-etorriak errazteko eta mugikortasun iraunkorra sustatzeko neurriak garatzea.

2. Garapen akademikoa eta ikerketaren garapena

- 2.1. Bisita- eta bilera-programa bat ikastegiekin garatzea, zuzendaritza-taldeei laguntzeko beren kudeaketa-lanetan.
- 2.2. Ikastegien ekimenak bultzatu eta babestea, campusaren eskaintza akademikoa zabaltzeko.
- 2.3. Ikastegiei laguntza ematea unibertsitate-enpresa ikasgelak sortzeko, bai ikastegietakoak, bai campusekoak.
- 2.4. GJHen ezagutza bultzatzea, eta gure deialdietan ikertaldeak helburu horiekin inplikatu daitezen sustatzea.
- 2.5. 2023ko Zientzia Astea antolatzea, Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetzarekin lankidetzan.
- 2.6. Irakasle eta ikertzaileen gaitasunak eta prestakuntza hobetzera bideratutako jarduerak garatzea.
- 2.7. Unibertsitate aurreko ikasleei zuzendutako jarduerak antolatzea, gaitasun zientifiko-teknikoak gara ditzaten.
- 2.8. UPV/EHUko Uda Ikastaroen Fundazioarekin koordinatzea Arabako Lurralde Historikoan egiten diren ikastaroen antolamendua.
- 2.9. Harremanak estutzea eta lankidetzan aritzea lurralde historikoko eta EAEko erakunde publikoekin, eragile sozioekonomikoekin eta erreferentziazko kanpo-erakundeekin, lankidetzak-hitzarmenak formalizatzeko, praktikak, GRALak, MALak, doktorego-tesiak eta abar egiteko, bai eta zerbitzuak kontratatzeke ere.

3. Esperientzia Gelak

- 3.1. Giza Zientzietako titulazioaren irakaskuntza antolatzea.
- 3.2. Adinekoentzako Unibertsitate Ikastaroak (AUI) eta Ikastaro Osagarriak planifikatu eta garatzea; besteak beste, graduiko irakasgaiak eskaintzea, belaunaldien arteko harremanak sustatzeko.
- 3.3. Esperientzia Geletako ikasleentzat interesgarriak izan daitezkeen arlo akademikoaz kanpoko jarduerak antolatzea.
- 3.4. Esperientzia Geletako ikasleen eta ikasle ohien kultur elkarteari (ACAEXA-AEIKE) jarduerak antolatzen laguntzea.
- 3.5. Lankidetzan jardutea Helduentzako Unibertsitate Programen Espainiako Elkartearekin (AEPUM).
- 3.6. Ikasleek egindako *La voz de la experiencia/Esperientziaren Ahotsa* sei hilabetekaria prestatzea eta zabaltzea.
- 3.7. Lankidetzan aritzea UPV/EHUko sail eta ikastegiekin, eta beste erakunde eta elkarte batzuekin, unibertsitateko gainerako ikasleek eta/edo hiritarrek parte hartzeko moduko jarduerak antolatzeko eta eskaintzeko.
- 3.8. Elkarrekiko informazio-harremanak sortzea Arabako Foru Aldundiaren +55 ikasgeletako, Vital Fundazioko (+55 jarduerak) eta Vitoria-Gasteizko Udalaren BIZAN sareko (Adinakoentzako Zentro Soziokulturalak) jarduera eskaintzaren inguruan.
- 3.9. Hiru campusetako Esperientzia Geletako proiektuaren orainari eta etorkizunari buruz hausnartzea, modu koordinatuan.

4. Euskara, ikasleak eta mugikortasuna

- 4.1. Euskararen IV. Plan Gidariaren definizioan laguntzea eta unibertsitateko bizitzaren esparru guztietan euskararen erabilera areagotzeko jarduerak sustatzea.
- 4.2. Eztabaida eta zabalkunderako foroak bultzatzea, bai eta euskara tekniko-zientifikoa sustatzeko jarduerak ere.
- 4.3. Arabako campuseko ikastegiei laguntza ematea BIKAIN euskararen kalitate-ziurtagiria eskatzeko.

- 4.4. Campuseko unibertsitateko kideei laguntza ematea atzerriko hizkuntzak ikasteko.
- 4.5. Campuseko Ikasleen Ordezkarien III. Topaketa antolatzea.
- 4.6. Unikoak Araba ikasleei zuzendutako deialdia antolatzea, euskal kultura sustatzera bideratutako ideiak jaso nahi dituen.
- 4.7. Unibertsitate aurreko ikasleen orientazio profesionaleko jarduerak antolatzea eta haietan parte hartzea.
- 4.8. Europako Mugikortasunaren Astean parte hartzea, campusean ekimenak antolatuz.

5. Ekintzailtza eta laneratzea

- 5.1. INIZIA ArabaCampus programa garatzea Arabako Enpresa eta Berrikuntza Zentroarekin (BIC Araba) lankidetzan, Arabako campusean ekintzailtza eta oinarri teknologikoko INIZIA enpresa-haztegia bultzatzeko.
- 5.2. Enplegarritasun Planaren hedapenaosatzea ekintza hauen bidez:
 - Campusetako enplegu-zentroei laguntza ematea, bertan programatzen diren prestakuntza-, orientazio- eta bitartekaritza-ekintzak zabaltzea, antolatu eta garatzeko, enplegarritasuna errazteko eta laneratzea sustatzeko.

6. Kultura eta kirola

6.1. EHUkultura

- EHUkultura Araba programa zehaztea eta garatzea, hainbat kultura-diziplina aintzat hartuz: literatur jarduerak, lehiaketak, kultura-ikastaroak, liburu-aurkezpenak, erakusketak, antzerkia eta musika-kontzertuak.
- Hiriko eta lurraldeko kultur eragileekin lankidetzara sustatzea eta, horrela badagokio, hitzarmenak sinatzea.
- UPV/EHUko elkarten jarduerak sustatzea eta, beharrezkoa balitz, elkarte berrien eraketa bultzatzea, EHUkulturaren organigramari atxiki dakizkion.
- Campusean unibertsitate-hedakuntzako jarduerak bultzatzea (kongresuak, mintegiak, tailerrak, ikastaroak eta jardunaldiak), laguntzak emateko deialdiaren bidez.



6.2. **EHUkirola**

- "Campus osasungarria eta jasangarria" programa garatzea.
- Hiriko eta lurraldeko kirol-entitate eta -instituzioekin lankidetzatza sustatzea eta, horrela badagokio, hitzarmenak sinatzea.
- Unibertsitateko kirol-txapelketak: Arabako campusean bakarkako zein taldeko kirolen lehiaketak antolatzea, eta campus artekoetan parte hartzea, bai eta Euskadi eta Estatu mailakoetan ere.
- Kirol-sustapenaren eta -prestakuntzaren inguruko jarduerak garatzea: kirol-eskolak (errugbia, pilota, boleibola, tenisa...), hitzaldiak, errendimendu handiko kirolarien tutoretza, Joko Garbia ekimena, "Emakumea eta Kirola" programa eta abar.

7. Eranskina

2023-24 ikasturtean zehar programaturiko jardueren zerrenda, zeinetan Arabako Campuseko Errektoreordetza antolatzailea edo antolatzailekidea izango den. Jarduera gehiagorekin luzatu ahal izango da zerrenda hau. Jardueren datak UPV/EHUren webgunearen eta gainerako hedabideen bitartez jakinaraziko dira.

Iraila

- UPV/EHU ikasleentzako eta ikasle bisitariarentzako harrera-jardunaldia
- Campus Osasungarria eta Iraunkorra (COI) - Europako Mugikortasun Asteko jarduerak
- Arabako Esperientzia Gelen ikasle berrientzako harrera-jardunaldia
- Europako Kirol Astea
- COI - "Haurren elikadura osasuntsua" tailerra, ELIKAK (Nekazaritzako Elikagaien Segurtasunerako Euskal Fundazioa) emana, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean
- Erretiroa hartu edo 25 urte betetzen dituzten langileei esker ona adierazteko ekitaldia
- Aktibatu deialdia, unibertsitate-komunitateko kideen euskararen erabileraren aldeko ekimenak sustatzeko

Urria

- INIZIA programa - Ekonomia zirkularrari buruzko jardunaldia
- COI - Unibertsitate Osasungarrien egunean odola ematea, Arabako Odol Emaileen Elkarteak antolatua
- Unibertsitateen G9 Taldearen kulturako bilera sektoriala
- Esperientzia Gelen Opera Arratsaldeak - "Romeo y Julieta" operaren inguruko hitzaldia
- BEGIRADAK hitzaldi-zikloa - II. edizioa (hileko hitzaldia)
- Ikasturte hasierako kontzertua, unibertsitate-pabiloian
- Ingeleseko ikastaroak eta testu akademiko-zientifikoaren berrikusketa
- INIZIA programa - INIZIA EKIN Ekintzailatza Tailerraren hasiera
- INIZIA programa - Ikasgeletan Ekitea (Ekonomia eta Enpresa Fakultatea)
- COI - "Elikadura osasungarria hezkuntza-sisteman" tailerra, ELIKA Fundazioak emana, Hezkuntza eta Kirol Fakultatean
- COI - Campus Osasungarria eta Iraunkorraren aurkezpen-jardunaldia eta mahai-ingurua
- Kirol jarduera fisikoaren programaren hasiera (1. lauhilekoa)

Azaroa

- COI - Antibiotikoen erabilera neurtuaren aldeko lasterketa herrikoa
- Zientzia Astea, XXIII. edizioa
- "Zientzia kalean" erakusketa
- Ikerketa babesteko mintegi iraunkorra - Artearen Historiako lanbide-orientazioko eta ikerketako jardunaldiak
- Henrike Knörr sarien III. deialdia
- ESPERIENTZIA MINTEGIAR - I. Edizioa. «Envejecimiento "normal" vs deterioro cognitivo» gaiari buruzko mintegia, AFARABAK (Alzheimer eta beste dementzia batzuen Elkarte) emana
- INIZIA – "Terraforming" workshopa Genevako CERNen
- BEGIRADAK hitzaldi-zikloa - II. edizioa (hileko hitzaldia)
- Arabako campuseko ikasleen ordezkarien III. topaketa
- "Unikoak Araba 2023" ideia-lehiaketa
- INIZIA - Jabetza industrialari eta intelektualari buruzko Jardunaldia
- Gazteen Ekintzailtza Programaren hasiera
- "Hezkuntza eta Kirola" programa, euskararen erabilera hezkuntza-testuinguru ez-formaletan sustatzeko, Arabako Foru Aldundiarekin elkarlanean (Hezkuntza eta Kirol Fakultatea)

Abendua

- Euskararen eguna - Bertako produktuen dastaketa gidatua (CSS), HAZI fundazioarekin elkarlanean
- Euskararen eguna - Kontzertua unibertsitate-pabiloian
- BEGIRADAK hitzaldi-zikloa - II. edizioa (hileko hitzaldia)
- INIZIA programa - Ekonomia zirkularreko proiektuen garapenari buruzko jardunaldia, IHOBerekin (Eusko Jaurlaritzaren ingurumen-jarduketarako sozietate publikoa) lankidetzan
- COI - "Tupper osasungarria 10 minututan" tailerra, Egibide-Mendizorrotza Ostalaritza eskolaren eskutik
- Gabonetako kontzertua EHUTERPE unibertsitate abesbatzaren eskutik

Urtarrila

- Ikerketa babesteko mintegi iraunkorra - "Curriculum zientifikoa zabaltzea eta ebaluatzea: seiurtekoen deialdia" ikastaroa
- Arabako Esperientzia Gelen X. Jardunaldiak

Otsaila

- Errendimendu handiko ikasle kirolariekin topaketa
- INIZIA Sariak
- ESPERIENTZIA MINTEGIAK - I. edizioa - "Cultura Gastronómica Vasca" mintegia, ELIKA Fundazioak emana
- Campusarteko kirol-txapelketa (1. eta 2. jardunaldiak)
- Esperientzia Gelen Opera Arratsaldeak - "Rigoletto" operaren inguruko hitzaldia
- BEGIRADAK hitzaldi-zikloa - II. edizioa (hileko hitzaldia)
- "Expouniversitas" orientazio-azoka, Miranda de Ebron
- Bigarren lauhilekoaren hasierako kontzertua
- Kirol jarduera fisikoaren programaren hasiera (2. lauhilekoa)

Martxoa

- *FIRST*LEGO League tornea, Innobasquerekin koordinazioan
- Zabalki nazioarteko pilota-txapelketa
- INIZIA programa - Ikasgeletan Ekitea (Vitoria-Gasteizko Ingeniaritza Eskola)
- Korrikaren 23. edizioa

Apirila

- COI - Errezeta osasungarrien lehiaketa
- COI - Campus Osasungarria eta Iraunkorraren sari-banaketa
- INIZIA programa - Marketin digitalari buruzko jardunaldia

Maiatza

- Enpleogune 2024 enplegu-foroa, Arabako Foru Aldundiarekin eta Gasteizko Udalarekin elkarlanean
- Esperientzia Gelen Opera Arratsaldeak - "La Bohème" operaren inguruko hitzaldia
- Arabako Esperientzia Gelen XX. promozioaren Graduazio Ekitaldia
- INIZIA DAY
- Udaberriko Kontzertua

Ekaina

- INIZIA programa - Merkatu-ikerketari buruzko jardunaldia
- IRlen hizkuntza-prestakuntzako ikastaroen deialdia